


Euskal AEn berrikuntza teknologikoan egindako gastua % 6,6 gehitu zen 2008. urtean

EAEko 10 langile eta gehiagoko enpresen % 31,5 berritzailea da

Eustaten datuen arabera, EAEko enpresek 2.782 milioi euroko gastua egin zuten 2008. urtean berrikuntza teknologikoari lotutako jardueretan. Aurreko urtearen aldean kopurua, beraz, % 6,6 gehitu zen. Gastu hori, gainera, BPGren % 4,1 izan zen.

Berrikuntzarako beharrezkoak diren jarduera nagusien artean honako gastuak azpimarratu behar dira: barruko I+G (% 45,4), makineria eta ekipamendua (% 29,8) eta kanpoko I+G (% 13,7). Gainerako jardueren gastua % 11,1 izan zen.

1. grafikoa: Berrikuntzarako gastuaren banaketa, jardueren arabera. (%) 2008. urtea. (%)



Iturria: Eustat

Berrikuntzako gastua urte batetik bestera gehitu da, nabarmen gainera; baina berrikuntza bultzatzen duen enpresa kopurua antzekoa izan da. 2006-2008 aldian, Euskal AEko enpresen % 15,0 (29.351 enpresa) berritzailea izan zen. Enpresa berritzailetzat hartzen dira merkatuan produktu (ondasun edo zerbitzua) berria edo hobetua sartu dutenak (% 5,8 2008. urtean) edo establezimenduan bertan prozesu berria edo hobetua ezarri dutenak (% 13,8).

1. taula: Enpresa berritzaileak eta berritzeko jardueretan egindako gastua, urteka.

	Guztira						Unitatea: milioi eurotan eta enpresen %tan 10 langile edo gehiago					
	2001- 2003	2002- 2004	2003- 2005	2004- 2006	2005- 2007	2006- 2008	2001- 2003	2002- 2004	2003- 2005	2004- 2006	2005- 2007	2006- 2008
Euskal AE	16,5	16,8	16,9	16,6	16,1	15,0	32,1	31,9	33,3	32,7	32,0	31,5
Lurralde historikoa												
Araba	12,8	13,6	15,1	15,7	15,9	13,7	29,7	31,9	33,8	34,3	30,1	29,9
Bizkaia	16,0	17,5	17,6	17,1	16,7	15,5	30,9	30,1	32,4	30,5	29,9	29,4
Gipuzkoa	18,7	17,0	16,5	16,3	15,1	14,7	35,1	34,6	34,3	35,3	36,2	35,4
Berrikuntzako gastua	1.836,0	2.010,2	2.161,7	2.352,2	2.609,9	2.782,0	1.472,6	1.463,6	1.677,8	1.829,7	2.030,0	2.193,9

Iturria: Eustat

Soilik 10 langile edo gehiagoko enpresak kontuan hartuz gero ehunekoa % 31,5era igotzen da. Kasu honetan produktua berritu zutenak % 15,4 izan ziren eta prozesua berritu zutenak % 28,0.

Produktuaren berrikuntzak % 25,4ko eragin ekonomikoa izan zuen enpresa berritzaileen negozio kopuruan, 2006-2008 aldian zehar

Bestalde, enpresa berritzaileetako negozio kopuruaren % 25,4 produktu berritzaileek eragin zuten; aldatu gabeko produktuek edo pixka bat aldatu direnek % 74,6 sortu zuten. Produktu horiek berritzaileak dira bai enpresarako bai merkaturako. Kasu honetan % 11,4ko eragin ekonomikoa izan zuten.

Guztira 10 langile edo gehiago dituzten enpresetan ehuneko horiek pixka bat aldatu ziren; aldi honetan, produktu berriek edo nabarmen hobetuek % 24,3ko eragina izan zuten negozio kopuruan. Gainera, produktua merkaturako berria izan denean, batez besteko eragin ekonomikoa % 9,7koa izango zen.

Berrikuntzarako gastuak zituzten enpresen % 35,0k finantzaketa publikoa jaso zuen

Berrikuntza jardueretan gastuak zituzten enpresen % 35,0k finantzaketa edo laguntza publikoren bat jasotzen zuen. Laguntza guztien artean Eusko Jaurlaritzak emandakoa azpimarratu behar da, enpresa guztien % 26,3ri eman baitzion laguntza. Guztira 10 langile edo gehiago dituzten enpresen % 43,3k laguntzak jaso zituen. Kasu honetan ere Eusko Jaurlaritza izan zen enpresa gehien finantzatu zuena: berrikuntzarako gastuak izan zituzten tamaina horretako enpresen % 32,5ari eman zion laguntza.

2. taula: Finantzaketa publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileak, jatorriaren arabera. 2006-2008. (%)

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Finantzaketa publikoa jasotzen dute hauetatik	35,0	43,3
Tokiko administrazioak	3,9	6,5
Foru aldundiak	9,3	13,9
Eusko Jaurlaritza	26,3	32,5
Administrazio zentrala	5,1	16,5
Europar Batasuna	8,8	7,9

Iturria: Eustat

I+G eta berrikuntza jardueretako lankidetzari dagokienez, establezimendu berritzaileen % 9,6k akordioaren bat sinatu zuen, 2006-2008 aldian, enpresa edo erakunderen batekin. 10 langile edo gehiagoko establezimenduen artean % 22,0raino gehitu zen ehuneko hori.

Langile kopuru hori duten enpresen artean akordioaren bat sinatu dutenek batez ere honakoekin ibili ziren lankidetzan: ekipamenduen, materialen eta abarren hornitzaileekin (% 54,5), zentro teknologikoekin (% 46,6), adituekin eta aholkularitza enpresekin (% 38,3), enpresa bereko beste establezimendu batzuekin (% 33,4) eta unibertsitateekin eta beste erakunde batzuekin (% 32,1).

Enpresen erdiak uste du faktore jakin batzuek berrikuntza teknologikoa oztopatzen dutela

Halaber, enpresen erdien (% 53,1aren) ustez faktore jakin batzuek berrikuntza teknologikoari traba egiten diote. Hain zuzen, enpresek honako faktoreak azpimarratu dituzte: berrikuntzarako kostuak gehiegizkoak izatea (% 40,6), finantza iturririk ez egotea (% 37,7) eta arrisku ekonomikoak gehiegi izatea (% 37,2). 10 langile edo gehiagoko enpresen % 64,1k uste du faktore batzuek berrikuntzari traba egiten diotela, eta traba berberak azpimarratu dituzte.

3. taula: Enpresak, berrikuntzari traba egiten dioten faktoreen arabera. 2006-2008.(%)

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Berrikuntzari traba egiten dioten faktoreak daude	53,1	64,1
Faktore ekonomikoak:	45,9	54,8
.- Gehiegizko arrisku ekonomikoak	37,2	41,8
.- Berrikuntzako kostu handiak	40,6	48,5
.- Finantzaketa-iturririk ez	37,7	40,8
Barruko faktoreak:	33,8	45,2
.- Erakundearen zorrotasunak	13,6	22,3
.- Langile gaiturik ez	20,3	27,8
.- Teknologiai buruzko informaziorik ez	21,2	25,7
.- Merkatuei buruzko informaziorik ez	22,1	23,2
Beste faktore batzuk:	30,2	34,3
.- Arauek malgutasun urria dute	20,5	23,0
.- Bezeroek sentikortasunik ez	24,5	25,6

Iturria: Eustat

10 langile eta gehiago dituzten enpresa berritzaileen % 27,4k noizbait patenteren bat edo asmakizun eta berrikuntzak babesteko metodoren bat erabili du

Nabarmentzekoa da 10 langile eta gehiago dituzten enpresa berritzaileen % 27,4k noizbait patenteren bat edo asmakizun eta berrikuntzak babesteko metodoren bat erabili zuela 2006-2008 aldian zehar. Horrela, aldi horretan, enpresen % 8,3k patenteren bat eskatu zuen bere establezimenduan garatutako asmakuntzak edo berrikuntzak babeste aldera eta % 9,4k patenteren bat zuen indarrean 2008. urtearen amaieran. Aldi berean, enpresa berritzaileen % 23,9k beste babes-metodo batzuk erabili zituen aldi horretan. Azken hauen artean nabarmentzekoak dira modeloen erregistroa, fabrika-markak, egile-eskubideak, etab.

Ohar metodologikoa: Eustatek egindako Teknologia-Berrikuntzaren Inkesta edozein tamainako eta jardueraren edozein sektoretako (lehenengo sektorea izan ezik) EAEko enpresei, herri administrazioei eta etxeko zerbitzuei zuzentzen zaie. Inkestaren helburua, enpresek berrikuntza teknologikorako gauzatzen dituzten jardueri buruzko informazioa ematea da. Inkestak, gainera, Euskal AEko 3.400 establezimenduko eredu-lagin bat hartzen du oinarri gisa.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Miguel Escalada

Tel.:+34-945-01 75 96 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es